



JANARIAK

1. Esnea hartu izan dut
ume nintzenetik
ta oso gogoko dut
esnea oraindik
biberoia hartu dut
ta atsegin dut nik
ondo hasi naiz eta
ez dit egin minik.
2. Ni hasiaz joan naiz
dena probatuta
berdura guzti hoiek
egin ditut uka
orduán eiten nuen
erdi beldurtuta
armarioko galletak
hartu izkutuka.
3. Gosari, bazkaria
eta merienda,
afaria gauean.
Bukatuz zerrenda,
guztietan onena,
azken hau omen da:
otorduen arteko
gozokien denda.
4. Ortuan ere bada
hainbeste barazki.
Hoei esaten diet
basta edo aski.
Guztiak eiten dira
sarritan nahasi;
hobe daukate hoiek
gozokitan hasi.
5. Guk janari aldetik
gabonak onena.
Orduan ipintzen naiz
benetan gizena:
turroia eta ganbak,
oso nabarmena.
Guzti hoiek jateko
dut seigarren sena.
6. Nik jan izan dut aizu
pila bat angula.
Hori bezalakorik
ez dago sekula.
Eta ez dago gaizki
madari mardula.
Gero ametsa dugu
gure pelikula.
7. Nik igaro izan dut
hainbeste gosete.
Diru gutxi eduki
ta ezer ez merke.
Orduan nahi izan dut
nik bastante bete.
Soluzio onena
ostea daiteke.
8. Murrá bajatuta,
serio-serio,
afaltzen gaudela gu,
nonork berau dio:
pastel horrek dakartza
hainbat ondorio,
loditu eingo zara,
janez horraitio.



9. Sukaldera hurbilduz
formal eta majo,
orduak ematen dut
nahiko gizarajo.
Eskua luzatu dut
azpitik ta bajo.
Ez dut gailera hartu,
mekatxis karajo!

10. Aizu hau gertatzen da
babak jan ezker:
uzkerka baten hasten
zarela zu gero.
Usain horrek sudurra
jartzen bai du ero.
Eskuak baietz euki
gorri edo bero.



11. Kirolariak ere
badute euren dieta.
Zaindu egin behar dira
ta ez egon erreta.
Eiteko hainbat geldialdi
eta jaurtiketa.
Ondo elikatzea
da euren errezeta.

12. Azukreak baditu
makinat arazu.
Berori bihurtzen da
agin denen maisu.
Haginak garbitzea
be komnei zaizu.
Ez zazu azukrerik jan
ez izan mukizu.

13. Umeak orain hartzen
dabilta papilla.
Hori beraiantzako
dala marabilla.
Janari hori gustatzen
zaie eurei pilla,
ahora sartzeko ta
beteteko zila.

14. Hiritako gizonen
jatordua hau da:
hamarretan gosald
bazkaria bada.
Hiruretan daukate
ez eiteko traba.
Afarria egin aurretik
pasatu da gaba.

15. Oso goiz jaten dute
bai baserritarrek:
hamabitan bazkaldu
egiten du batek,
zortzir etan afaldu.
Nik hau esan leiket,
gosea ekarten die,
hor, hainbeste nekek.

16. Janaria azaldu dut
gogor eta fuerte.
Nire azalpen honekin
ingo zinen bete.
Nahizta asko jateko
batzuk esan tente,
larregi jatea ere
txarra izan liteke. ■